

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE
GOSEAREN AURKAKO KANPAINA



LIII. KANPAINA

**2012ko
txostena**



Raquel Majolero



aurkibidea

<u>Aurkezpena</u>	3
<u>Nor gara?</u>	4
<u>Zer egiten dugu?</u>	7
1.- Sentsibilizazioa	8
2.- Garapen-proiektuak	10
<u>Zergatik egiten dugu?</u>	17
<u>Gure kontuak</u>	18
<u>Gardentasuna</u>	20
<u>Eskerrak</u>	21
<u>Manos Unidas erakundearen ordezkartzak</u>	23

Azaleko argazkia: Marta Carreño.

Itzulpena: "GARLO"
garlo@garlo.eu



2012an, eta gosearen aurka ekindako borrokaren testuinguruan betiere, Milurteko Garapen Helburuen artean seigarrenean oinarritu ginen; halaber, helburu hori lantzeari esker, HIESak, paludismoak eta tuberkulosiak Lurreko komunitate txiroenetan eragiten dituzten ondorioak murrizteko ekimenak gauzatu genituen. Bestelako gaixotasunei buruz ere kontzientziatzen saiatu ginen, hala nola, chagas, denge edota loaren gaixotasuna. Horiek bezalako eritasunei “ahaztutako gaixotasunak” deritze, pobreenek pairatzen dituztelako eta, oro har, Iparralde aberatsean ikertu ere egiten ez direlako, ez baitira ezagutu ere egiten ia-ia. Halako gauzak, tamalez, behin eta berriz gertatzen dira gure munduan. Manos Unidas erakundearen halakorik berriz ez gertatzeko egiten dugu lan.

Zentzu horretan, Afrika da emaitza kaltegarrienak dituena. Horretan eragin dute, besteak beste, gerra eta gatazkek; makina bat dira halakoak bizi dituztenak eta, hori dela eta, oso zaila da leku horietan garapen-proiektuak abiaraztea.

Kontinente asiarrera so eginda ikusten dugun bezala, tuberkulosiaren eta hiesaren arteko konbinazioak milioika hildako eragiten ditu urtean. Tuberkulosi kasuen bi herenak Asian gertatzen dira. Ustez kontrolpean ze goen gaixotasun hori, izan ere, indartsu agertu da berriro ere; hori horrela, emaitza erabat hilgarria eragiten du hiesarekin batera hartuz gero. Prebentzio-lana egitean erabat garrantzitsua da, eta hala berresten dute guk sustatzen ditugun proiektuek.

Amerikari dagokionez, orain arte bizi dituzten berdintasun ezak areagotu egin dira mundu mailako krisia dela eta.

Honako hau zen 2012ko kanpainaren leloa: “Osasuna, denen eskubidea”. Lelo horrek bigarren zati bat ere izan zuen, geldirik ez egoteko gonbitea eginez: “Ekin!”; laguntza hori ezean, gure lana ez litzateke behar bestekoa izango, krisia gure sektorean ere nabaritzen hasi baita. Herrialde pobreenen aurrean oihal bat jarri izan balitz bezala, oso zaila suertatzen zaigu horiek ikustea. Baina ezin dugu etsi. Herrialde horien aldeko konpromisoak tinko dirau, bai Manos Unidasen aldetik, bai Espainiako herritarren aldetik. Jatorri publikoko diru-sarrerak dezente murriztu ziren 2012an; laguntza pribatuen beherakada, ordea, ez da horrenbeste nabaritu. Datu hori garrantzitsua da gure erakundearentzat, jatorri pribatuko sarrerak % 85,6 baitira guztira.

Hori horrela, eta egun bizi ditugun zailtasunak ahaztu gabe, gosearen aurka borrokatzeko jasotzen dugun laguntza erabat sendoa dela esan genezake. Eskerrik asko guzti-guztiori konpromiso horretan tinko mantentzearren. Badakigu ez gaudela bakarrik. Eguneroko lana da gure erantzuna; gure nortasuna bere horretan mantentzen dugu, soiltasuna eta gardentasuna bezalako baloreak zainduz, eta gure erakundearen azken helburua ahaztu gabe: txiroak, eta gosearen nahiz gosea eragiten duten arrazoien kontrako borroka. Pobrezia existitzen artean, lanean jarraituko dugu. Helburu hori oinarri duen gure lanaren aurreko ilusioa berritu nahi dugu, duela berrogeita hamar urtez geroztik mugiarazten gaituena den heinean.

Soledad Suárez
Presidentea



nor gara?



Rafael Gómez

Manos Unidas Espainiako Eliza Katolikoaren baitako Elkarteak da garapen bidean diren herrialdeen laguntza, sustapen eta garapenerako sorturikoa. Aldi berean, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) katolikoa eta sekularra da, boluntarioz osatua.

Gure egitekoa da gosearen, nutrizio eskasaren, miseriaren, gaixotasunen, azpigarapenaren eta hezkuntzarik ezaren aurka borrokatzea, baita horiek guztiek eragiten dituzten arrazoiei aurre egitea ere: bidegabekeria, pertsonen eta herrien arteko ondasun eta aukeren banaketa desberdina, ezjakintasuna, aurreiritziak, elkartasunik eza, axolagabekeria eta giza eta kristau balioen krisia (Estatutuak, 5. art.).



Unión Mundial de Organizaciones Feministas Católicas (UMOFC) zelakoak Manifestu bat kaleratu zuen, non “gerra goseari” deklaratu zioten, 1955eko uztailaren 2an. Halaber, Espainian 1959an antolatu zen “Gosearen Aurkako Kanpaina” *Mujeres de Acción Católica* elkartearen eskutik, gaur egun Manos Unidas izenarekin ezagutzen duguna alegia.

ORDEZKARITZAK

Manos Unidasek elizbarrutiko egitura du, eta horri esker, espainiar geografia guztian zehar zabaltzen da egun erakundea. Elizbarrutiko **70 Ordezkaritza** horien egiteko nagusia da, munduak bizi duen egoeraren aurrean herritarrak sentsibilizatzea, eta erakundeak gauzatzen dituen proiektuak finantzatzeko diru-bilketez arduratzea. Hori erdiesteko, makina bat dira erakundeak burutzen dituen ekintzak.

BOLUNTARIOTZA

Estatutuetan jasotako definizioaren arabera, boluntarioz osaturiko erakundea da Manos Unidas. Boluntario izatea bizi-aukera bat da guretzat, gure gizartean inoiz baino beharrezkoagoak diren doakotasuna eta solidaritatea bezalako balioen testigantza, alegia. Hori horrela, **5.303 dira** erregulartasunez eta urte guztian zehar beraien denbora eta egitea erakundeari eskaintzen dizkioten **boluntarioak**. Zerbateko hori, ordea, dezente gehitzen da Kanpaina zehatzen punturik gorenean. Manos Unidas erakundearen gobernu-organoak ere boluntarioz osaturik daude. Horiekin batera, bestalde, badira kontraturiko zenbait pertsona ere; eguneroko egitekoak gauzatzeko funtsezkoak eta Manos Unidasen printzipio eta irizpideak errespetatzen dituztenak.

BAZKIDEAK ETA LAGUNTZAILEAK

Asko eta asko dira Manos Unidaseko **85.250 bazkide eta laguntzaileei** esker 2012an beraien bizimodua hobetzea lortu dutenak. Batasunean, solidaritatean, doakotasunean eta justizian oinarrituriko espiritu horrek mugiarazten gaitu, hain zuzen ere, mundu hobea goaren alde eguneroko borrokan jarraitzera.

*Horiei guztiei
ESKER
burutzen du
Manos Unidasek
bere lana.*

Mundu globalizatu honetan, pertsona, herrialde eta kontinenteen arteko harremanak beharrezkoak bezain abegarriak dira. Manos Unidas erakundea estatuko nahiz nazioarteko sare eta erakundeetan ordezkatuta dago:

- Consejo Pontificio Cor Unum
- CIDSE
- CONCORD
- CONGDE, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundea
- Fundación Sur
- Pobreziaren aurkako Itun Globala
- Laikoen foroa
- Misioen Kontseilu Nazionala
- Espainiako Boluntariotzaren plataforma
- Espainiako Fundraising Elkarte



Manos Unidas erakundearen organigrama

GOBERNU-ORGANOAK

Batzar Nagusia

Batzar Nagusia da Manos Unidas erakundearen gobernu-organoren gorenena. Batzordeko kideak urtean bi aldiz elkartzen dira.

Presidentea

Elizbarrutietako egoitzetako 70 Presidente-Ordezkarik

Zerbitzu Zentraletako ordezkari bat

Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra Batzar Nagusiaren mendeko gobernu-organoa da eta, azken honen jarraibideak kontuan hartuz, Manos Unidas erakundearen lana zuzendu du. Batzordeko kideak hilean behin elkartzen dira.

Presidentea*

Soledad Suárez

Kontseilaria

Mons. J. José Omella

Kontseilariordea

Jesús Vidal

Presidenteordea

Pilar Mendo

Idazkaria

José Valero

Diruzaina

Tomás Rodríguez

Acción Católica elkarteko Idazk. Nag.

Ricardo Loy

Batzar Nagusiko
ordezkariak (5)

Benita Asensio, M^a Pilar Bilbao,
Fco. Javier Fornell, Rosa Pradas,
Araceli Caverro

Zerbizuz Zentraletako
ordezkariak (3)

Sonsoles Fernández-Iriondo,
Julián Jiménez, Clara Pardo

*Soledad Suárez da Presidente 2012ko urriaz geroztik. Ordura arte, Myriam G^a Abrisquetak bete zuen kargua.

ELIZBARRUTI MAILAKO ANTOLAKUNTZA

Elizbarrutiko Zuzendari Taldea

Presidente/
Ordezkarria

Presidenteordea/
Ordezkarria

Idazkaria

Diruzaina

KUDEAKETA-ORGANOAK

Zerbitzu Zentralak

Zerbitzu zentralak erakundearen gobernu-organoei adosturiko akordioak gauzatzeko ardura duten zerbitzu teknikoak eta administratiboak dira.

Presidentea

Soledad Suárez

Idazkari Nagusia

Rafael Serrano

Zuzendaritza idazkaritza
Idazkaritza teknikoak

Baliabide eta Pertsonen
Administratzaile Arloa

Garapenerako Hezkuntza Arloa

Komunikatzaile eta
Presentzia Publiko Arloa

Finantza eta Planifikazio
Kudeaketarako Arloa

Ordezkaritza Arloa

Proiektuen Arloa



Manos Unidas/Javier Mármol

Manos Unidas erakundeak elkarren osagarri diren bi arlotara zuzentzen du bere ekintza:

- Gosea eta azpigarapena, bere kausak eta balizko irtenbideak ezagutzera eman eta salatu,
- Baliabide ekonomikoak bildu, behar horiek artatzera bideratutako programak, planak eta garapen proiektu integralak finantzatzeko.

Manos Unidasek bere **LIII. kanpaina** burutu zuen 2012.urtean, "**Osasuna, denen eskubidea: Ekin**" goiburupean, eta **Milurteko Garapenaren seigarren Helburuan** eragin nahi izan du bereziki, hots, malaria, hiesa eta beste gaixotasunen aurkako borrokan.



Sensibilizazioa

Gosea eta azpi garapena existitzen direla ezagutu arazi eta salatzea da Manos Unidasen funtsezko egitekoetatik bat. Era berean, egoera horien arrazoiak eta irtenbideak zeintzuk diren ere lantzen ditu.

2012 urteko kanpaina guztiontzako osasun-eskubidean oinarritu zen; halaber, eta Milurteko Helburuen artean 6.ak aldarrikatu bezala, zenbait gaixotasuni aurre egin zitzaien, hala nola, GIB/HIESa, malaria edota ahaztutako gaixotasunak, pertsona pobreen artean erasokorrenak dira-eta. **“Osasuna, denen eskubidea: Ekin!”** leloarekin osasuna eta garapena elkarrekin doazela jakinarazi nahi izan diogu espainiar gizarteari. Kanpaina horren hedapenerako, informazio eta publizitaterako material ugari prestatzeaz gain, makina bat hedabide-oren laguntza ere izan dugu.

Gure helburua da geroz eta gehiago izatea gizarte eraldaketarekin konprometituta daudenen pertsona-kopurua; pertsona horiek gainontzekoen ongizatearen erantzule sentitzea nahiko genuke, behartsuenen garapenaren alde lan egiteko beharrianaz jabetu daitezela, alegia.

Gainera, osasun eta garapen arloan adituek parte hartu zuten Malagan nahiz Andaluziako bestelako herrietan gauzaturiko **“Garapenerako osasuna”** izeneko **Manos Unidasen XI. Foroan**. Bertan, gaixotasun desberdinen arrazoiak eta horien ondorioak landu ziren, bai eta Manos Unidas erakundeari esker horiei aurre egiteko egun aplikatzen diren konponbideak ere.



Hori lortzeko, haur eta gazteen prestakuntzaren aldeko apustua egin dugu, beraien esku baitago munduaren etorkizuna. Balioetan oinarrituriko hezkuntza-materiala prestatu dugu maila guztietarako. Era berean, irakasleei ere prestakuntza eskaintzen diegu, ikastaro eta tailerren bidez. Txikienen kasuan, Manos Unidas erakundeko zenbait kidek Ipuin Kontaketa teknikak landu dituzte, jarduera hori ikastetxeetan antolatu ahal izateko.

Manos Unidas erakundeak gaikako zenbait kanpainatan hartzen du parte, hala estatuan nola nazioarte mailan. Kanpaina horiek gosearen eta pobreziaaren aurkako borrokarekin lotuta daude, eta lotura estua dute justizia klimatikoarekin, elikaduren segurtasunarekin eta garapen iraunkorarekin. Nazioarteko prozesu garrantzitsuetan izan gara, adibidez, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (**Río + 20**), Elikaduren Segurtasunari buruzko Batzordean (FAO) edota 2015etik aurrera garapenerako agenda orokor berria osatzeko lan-prozesuen elkarriketan.

Lotura Operazioa

- Lotura Operazioaren bidez halako harremanak sortzen dira espainiar gizarteko pertsona nahiz taldeen eta Manos Unidas erakundearen laguntza jasotzen duten komunitateen artean. Modu horretara, bi-bien arteko egoera edota bizi-baldintzak elkarri hurbiltzea eta Hegoaldeko herrialdeekiko sensibilizazioa eta konpromisoa areagotzea lortzen da. Hara, 2012an guztira 501 Lotura Operazio gauzatu zituen Manos Unidasek, hau da, **20.599.612,52 €-ko** zenbatekoa orotara.




Proiektua

2012an Manos Unidas erakundeak garapen bidean dauden **56 herrialdeetan** esku hartu du; **550 proiekturen** bidez makina bat ekimen sustatu ditu, egunez egun pobreziatik ateratzeko borrokan diharduten pertsonengandik sortutakoak.

Munduan **870 milioi lagun** baino gehiago dira gose; bidegabeba den munduko ordena baten biktima dira, eta modu erabat gogorrean pairatzen dituzten krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioak. Ondorio horiek, gainera, areagotu egiten dituzte **aldaketa klimatikoa** edota ingurumenaren narriadura bezalakoek. Elikaduraren krisian badira zuzeneko eragina duten bestelako faktoreak ere, hala nola, elikagaien espekulazioa, lurren edota erregaien metatzea etab. Horren guztiaren ondorioz, munduko herritarren % 15ak **GOSEA** pairatzen du.

proiektuak kontinenteka



Garapen bidean dauden zenbait herrialde bizitzen ari diren hazkunde ekonomiko azkarrak ez gaitu itsu behar eta, ondorioz, arreta berezia jarri behar dugu herrialde horietan sortzen ari den geroz eta desberdintasun handiagoan, zeinak miseriarik eta gorrienera daromatza herritarren zenbait sektore.

Goseari aurre egitea, elikadura-eskubidea landuz. Horixe da, hain zuzen ere, Manos Unidas erakundeak gauzatzen duen lanaren ardatz nagusietako bat. Hori garatzeko, komunitate hauskorrenen elikadura-segurtasuna bermatzea helburu duten programak lantzen dira.

Horrez gain, **gatazken** biktima diren pertsonak, jandak ahaztuta dauden larrialdiak bizi izan dituztenak (lurrikarak, uholdeak, goseteak...) edota pertsonen trafikoa pairatu dutenak, Manos Unidas erakundearen eguneroko lanaren bihotzean daude oraindik ere. Halako pertsoneri ere laguntza eskaintzen diegu Haiti, Somalia, Hego Sudan edota Birmania bezalako herrialdeetan.

Ziurgabetasuna nagusi den testuinguru honetan, jakin badakigu zeinen errealitate injustua bizi duten milioika biztanlek mundu zabalean. Horregatik, Elizaren Gizarte Doktrinak berezkoak dituen printzipioek inspiratu eta txiro nahiz ahaztuen sufrimenduak mugiarazita, Manos Unidasek komunitate hauskorrenen alde lan egiten jarraitzen du, elikaduren segurtasuna sustatuz, ur-baliabideak hornituz, edota osasuna nahiz hezkuntza sustatuz garapen-indizea baxua den herrialdeetan eta Estatuetak politikak aipatu eskubide horiek bermatu ezin dituzten herrialdeetan.


Bizi dugun mundu globalizatu honetan, baina, gosearen aurkako borrokak erantzun orokor bezain koordinatua izan behar du. Hori horrela izan dadin, CIDSE sareko beste europar erakundeekin elkarlanean jarduten dugu, bai eta Elizaren Gizarte Zerbitzuekin eta Hegoaldeko Caritas-ekin ere, esku artean dauzkagun beharizanen aurreko erantzuna ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

proiektuak arloka

Manos Unidas erakundeak nekazaritza, hezkuntza, osasuna, gizarte sustapena eta emakumearen sustapena bultzatzeko garapen proiektuak laguntzen ditu.

Gainera, larrialdi egoeran dauden herriak artatzen ditu, eta giza laguntza eskaintzen hala eskatzen duten inguruabarretan.

2012. urtean honako proiektu hauek onartu ziren:



Nekazaritza Sustatzeko: 94 proiektu

Zenbatekoa: 8.124.882,80 euro
Onuradunak: 196.484 zuzenekoak



Hezkuntza Sustatzeko: 185 proiektu

Zenbatekoa : 9.623.464,21 euro
Onuradunak : 1.034.578 zuzenekoak



Osasuna Sustatzeko: 89 proiektu

Zenbatekoa : 5.166.679,54 euro
Onuradunak : 1.768.705 zuzenekoak



Gizartea Sustatzeko: 99 proiektu

Zenbatekoa : 5.299.489,14 euro
Onuradunak : 901.293 zuzenekoak



Emakumea Sustatzeko: 83 proiektu

Zenbatekoa : 4.814.494,16 euro
Onuradunak : 288.242 zuzenekoak



Manos Unidas erakundearen Proiektuak munduan 2012an

Gainera, aurreko ekitaldiko proiektuak diruz laguntzen jarraitzen du.
2012. urtean guztira 870 proiektu izan dira.

amerika

1. Bolivia, 11 proiektu
2. Brasil, 13 proiektu.
3. Dominikar Errepublikak, 5 proiektu.
4. Ekuador, 8 proiektu.
5. El Salvador, 10 proiektu.
6. Guatemala, 17 proiektu.
7. Haiti, 10 proiektu.
8. Honduras, 6 proiektu.
9. Kolonbia, 6 proiektu.
10. Kuba, 2 proiektu.
11. Mexiko, 5 proiektu.
12. Nikaragua, 1 proiektu.
13. Panama, 4 proiektu.
14. Paraguay, 5 proiektu.
15. Perú, 25 proiektu.


Onartutako proiektuak guztira: 128.
Balioa: 11.079.432,30 euro.

afrika

1. Angola, 8 proiektu
2. Benin, 13 proiektu.
3. Boli-kosta, 3 proiektu.
4. Burkina Faso, 18 proiektu.
5. Burundi, 4 proiektu.
6. Egipto, 2 proiektu.
7. Eritrea, 2 proiektu.
8. Ertafrikako Errepublikak, 1 proiektu.
9. Etiopia, 6 proiektu.
10. Ghana, 6 proiektu.
11. Hego Sudan, 5 proiektu.
12. Kamerun, 12 proiektu.
13. Kenia, 19 proiektu.
14. Kongoko Errep. Demkr., 16 proiektu.
15. Madagaskar, 13 proiektu.
16. Malawi, 6 proiektu.



Manos Unidas erakundeak 550 proiektu onartu ditu orotara, 56 herrialdeetan, 33.029.009,85 euroko balioarekin.



asia

1. Bangladesh, 2 proiektu
2. Filipinak, 3 proiekt.
3. India, 162 proiekt.
4. Irak, 2 proiekt.
5. Israel, 2 proiekt.
6. Kanbodia, 2 proiekt.
7. Libano, 2 proiekt.
8. Nepal, 1 proiekt.
9. Palestina, 1 proiekt.
10. Sri Lanka, 4 proiekt.

**Onartutako proiektuak guztira: 181.
Balioa: 9.340.932,84 euro.**

17. Mali, 2 proiekt.
18. Marroko, 2 proiekt.
19. Mauritania, 11 proiekt.
20. Mozambique, 11 proiekt.
21. Niger, 2 proiekt.
22. Nigeria, 7 proiekt.
23. Ruanda, 4 proiekt.
24. Senegal, 8 proiekt.
25. Sierra Leona, 15 proiekt.
26. Somalia, 4 proiekt.
27. Tanzania, 4 proiekt.
28. Togo, 9 proiekt.
29. Uganda, 12 proiekt.
30. Zambia, 8 proiekt.
31. Zimbabwe, 8 proiekt.

**Onartutako proiektuak guztira: 241.
Balioa: 12.608.644,71 euro.**



afrika

54 herrialdez osaturiko kontinentea da Afrika, garapen bidean gehientsuenak. 1995 urteaz geroztik eta, batez ere azken urteotan, hazkunde ekonomiko handia bizi izan dute herrialdeok, baliabide naturalen prezioak izandako prezio gorakadak, esportazioen dibertsifikazioak eta teknologia berrien aplikazioak eraginda batik bat. Horrez gain, erakunde politikoak hobetu eta politika ekonomikoak aldatzeko joera dago herrialde horietan.

Baina Afrikak aurpegi bat baino gehiago ditu, eta hazkunde ekonomiko sendoa ego- teak ez du beti eragina izaten herritarren bizi-baldintzen hobekuntzan. Eskualdeen arteko gatazken, goseteen edota elikadura krisien lekukoak izaten jarraitzen dugu; horien ondorioz, kontinente bertako aberats eta pobreen arteko tarte handituz doala ikus genezake. Hori horrela, eta harrigarria bada ere, horren lur emankorrak, ur kopuru izugarriak eta laboreentzako klima ezin hobea dituen lurralde horretan elikadura arloko segurtasun eza aipatu behar dugu, tamalez. Eta elikadurari dago- kion segurtasun ezari bestelako gatazka eta gerrateak gehitu behar zaizkio, hau da, milaka eta milaka iheslari, errefuxiatu eta hildako.

Manos Unidas erakundeak landa eremuko herritarren sen- dotzea sustatzen du, haurrak, gazteak eta emakumeak batez ere. Zentzu horretan, beharrezkoa duten hezkuntza eta pres- takuntza eskaintzen zaie, beraien gobernuek gauzatzen duten nekazaritza politikatik nola babestu jakin dezaten, eta beraien lurra nahiz oinarrizko zerbitzuak defendatu dit- zaten, gorakorrek diren atzerriko potentzien aurrean.

Lehengaiz eta lur emankorrez lepo dagoen herrialdea da Mozambique; hala ere, gosete ziklikoa bizi ohi dute zenbait eremutan. Mozambiqueko Martin Cipriano institutuan urtean 320 gazteri dagokien prestakuntza es- kaintzen zaie, familiako landa-bizitza defendatu ahal izateko nekazaritza zein abeltzaintzako teknikak bere- ganatu ditzaten. Ezagutza horiek, gainera, jatorrizko herrixketara zabaltzen dute, proiektuaren efektua biderkatuz.



amerika



Latindar Amerika da, kontinenteen artean, berdintasun eza nabarmenen bizi duena.

Halaber, eremu horretan pertsona eta herrialdeen arteko harremanak berdintasun ezean oinarrituta daude.

Badira “gorakorren” artean agertzen diren herrialdeak, hau da, errenta-maila handiekin; horietan gehienetan, ordea, herritar gehienak pobrezia-egoera larrian bizi dira. Etxe orratzen ondoan fabelak aurki genitzake, hirigune distiratsuen ondoan landa-komunitate atzerakoienak, industria eta finantzako instalazio modernoak nekazaritzarik eta zaharkituenarekin bizikidetzan daude, aberastasunik eta handienak pobreziarik eta muturrekoenarekin...

Horregatik lehenesten ditugu Latindar Amerikan, besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzara bideraturiko produkzio proiektuak, pobreenen elikadura segurtasuna bermatzeko, hain zuzen ere. Proiektu horietara gure baliabide guztien %50 bideratzen ditugu, gutxi gorabehera. Horrekin guztiarekin herri pobreenen hauskortasuna murriztu nahi dugu, ingurunera hobeto egokitzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako ereduak sustatu, lurren produktibitatea metodo ekologikoen bidez hobetu, bertako haziak defendatu, nekazaritza iraunkorra sustatu, taldekako produkzio eta merkaturatzeak indartu, etab.



Guatemalako hiru komunitate indigenetako berrogei emakume gaitu gara, ukui-luko abereak zaintzen; horri esker, elikadura dibertsifikatzeaz gain, eguneroko jakiak lortzeko bizi dugun segurtasun eza murriztea lortu dugu. Gainera, betidanik ukatu izan zaizkigun prestakuntza-baliabideak eskuratu ahal izan ditugu, gure eskubideak zeintzuk diren ezagutu, eta gure parte-hartzea areagotu dugu, bai toki-erakundeetan, bai erabakiak hartzeko unean.

asia

Hazkunde ekonomikoa gehien nabaritzen den lurraldea da. Bertako herritarren % 25 (emakumeak eta haurrak, batik bat) pobrezia-aren atalasetik behera bizi da ordea. Gainera, emakumeek diskriminazio izugarria bizi dute, gizonen ondoan. Azken hamarkadan 8 milioi fetu eme abortatu direla uste da, Horri emakumezkoen haur-hilketa gehitu behar zaio, lurralde horretako gaitzik izugarrienetarikoa, non emakume jaiotzea gerta litekeen gauzarik eta txarrena den familientzat. Hori hobeto ulertu ahal izateko nahitaezkoa da Indiako kultura ezagutu eta ulertzea; ekonomia funtsezko faktorea da familientzat: mutikoak heztea da nahi dutena, ahal dela neskatoak saihestuz. Neskatoak karga eta zamen parekoak dira, familiek "galdu" egiten baitute eta, horrez gain, ezkondu ahal izateko beharrezkoa izaten baita dotea. Mutikoak, bestalde, familian bertan gelditzen dira, etxea mantentzeko lan egiten dute eta, ezkontzean, gainera, dotea ekartzen dute etxekoentzat. Hori dela eta, emakume gehienek ez dute inolako hezkuntzarik jasotzen; etxea atondu eta neba-arreba gazteagoak zaindu besterik ez dute egin behar.

Asia Ekialdean, pertsonen trafikoa eta laneko nahiz sexu esplotazioa dira, besteak beste, emakumeek bizi duten indarkeriaren adierazle nagusiak. Izan ere, beraien familiek ere diru-sarrera soil bezala ikusten dituzte sarri askotan.

Errealitate hori abiapuntu moduan hartuta, hezkuntzaren eta lanaren bidez emakumeak indartzea da Manos Unidas erakundearen asmoa: gainera, injustizia sozialaren aurke sentsibilizazio-programak sustatzen ditu, horiek baitira emakumeen gaitasun eta ahalmenak erabat garatu ahal izateko hasierako baldintzak eta bermeak.

Manos Unidasen laguntzari esker Uttarakhand-eko (Indiako iparraldea) emakumeok gure bizi-kalitatea hobetu ahal izan dugu, diru-sarrerak sortzeko programen bidez; halaber, gure herrixketan makina bat talde eratu dira, etxeko indarkeria prebenitu eta murriztu aldera. Horrez gain, komunitate mailako antolakuntzari esker erabakiak hartzeari ekin diogu, maila guztietan: familian, gizartean eta politikoan.





Kanpoaldera ateratzea

Manos Unidas/M^a Eugenia Díaz

Geroz eta gizarte kontzientzia gehiago dago, teknikari eta adituen hausnarketari esker eta hedabideei esker. Hori horrela, munduan gosea desagertu arazteko, ez dugu baliabideen gabeziarik, erabaki politiko eza baizik. Hala ere, egunero-egunero ikusten dugun bezala, ez Nazio Batuen erakundeek, ez potentzia handien gobernuek, ez dute egoera horri bukaera emateko inolako neurri erabakigarriarik hartzen. Kontrara, interes ekonomikoetan oinarrituriko gatazkak onartzen dituzte, Kongon esaterako, non herritarrek eten gabeko sufrimendupean bizi diren.

Interes horiek pertsonen ondarearen goitik jartzten dira, eta egoera hori areagotu egiten da pertsona pobreen kasuan: Izan beharko litzatekeenaren kontrakoa justu-justu; izan ere, zenbat eta pobregoa, babes eta laguntza gehiago beharko luke.

“Caritas in veritate” aholkuak dioen moduan, herrialdeen garapena ez da arazo ekonomikoa soilik, baita morala ere. *“Ezinezkoa da zuzentasunik gabe, eragile ekonomikorik gabe eta guztion ondasuna deritzona kontzientzian indartsuki sentitzen duten eragile politikorik gabe.”* (71. zk.). Eta horrek gobernuak ez ezik, multinazionalak ere barne hartzen ditu, bai eta munduko arau komertzial zein ekonomiko nagusiak sustatu, eman edota arautzen dituztenak ere.

Koherentzia moral hori sustatzea, inguruabarra edozein izanik ere pertsonen balioak defendatzea,

hori da Manos Unidas erakundearen egiteko nagusia azken berrogeita hamar urteetan. Aurtengo Txostenean horri buruzko adibide zehatzak aurki genitzake, konpromiso hori berresten duten adibideak, hain zuzen ere.

Garapenerako proiektuak finantzatuta, gure erakundeak komunitate pobreenen helburu eta nahiak errealitate bilakatzen ditu. Horrez gain, gure artean pentsaera eta kultura solidarioa sustatzeko ahalegina egiten dugu, non besteena jabetzearen orde ematea eta dohaintza indartzen ditugun. Francisco Aita Santuak Elizari berari eskatzen dion ideia geure eginez, honakoa zabaldu nahi dugu: “norbere izatetik atera” eta “kanpoaldera joatea”, bertan baitaude txikiak, gose direnak, hau da, beharizanak eta funtsezkoenak ere ase gabe dituztenak.

Manos Unidas erakundeko bazkide, laguntzaile eta langile guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, urtero-urtero itxaropena mantendu arazten dutelako munduko herrialde pobreenetan bizi direnen bihotzetan. Jainkoak bedeinka zaitzatela, eta ongi eginaren lasaitasunaz bizi zaitzetzela!

+ Juan José Omella Omella
Kalahorra, eta La Calzada - Logroñoeko Gotzaina
eta Manos Unidas erakundeko Kontsiliaria





Javier Cuadrado

- Manos Unidas erakundearen diru-sarrerak **48.284.292** eurokoak izan ziren 2012. urtean.
- Gure diru-sarreraren % **85,6 iturri pribatuetatik** dator. Horien % 14,4 baino ez dator sektore publikotik.
- Jasotako guztizkoaren % **90,5 Manos Unidas erakundearen helburuetara bideratzen da** (% 84,8 Garapen proiektuetara, eta % 5,7 Sentsibilizazio kanpainetara).
- **Bazkideak dira, diru-sarreraren % 35,3rekin**, Manos Unidas erakundearen muina eta euskarria.

DIRU-SARREREN JATORRIA

FUNTS PRIVATUAK: % 85,6

● Bazkideak eta dohaintzagileak (1)	16.939.800.-
● Parrokiak eta entitate erlijiosoak	11.640.193.-
● Ikastetxeak	1.451.070.-
● Larrialdiak	96.046.-
● Herentziak eta legatuak	7.348.880.-
● Sentsibilizazio-jarduerak	3.579.557.-
SEKTORE PRIVATUA, GUZTIRA	41.055.546.-

FUNTS PUBLIKOAK: % 14,4

● Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarra	3.659.405.-
● Tokiko Administrazioa eta Administrazio autonomikoa	3.228.524.-
SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA	6.887.929.-

BILDUTAKO SARRERAK GUZTIRA: % 100 47.943.475.-

BESTELAKO SARRERAK (2) 340.817.-

SARRERAK GUZTIRA, 2012. URTEAN 48.284.292.-

GASTUEN BANAKETA

MANOS UNIDAS ERAKUNDEAREN HELBURUAK: % 90,5

● Sentsibilizazioa	2.585.411.-
● Garapen-proiektuak	38.231.806.-
MANOS UNIDAS ERAKUNDEAREN HELBURUAK, OROTARA	40.817.217.-

SUSTAPENA ETA BALIABIDEAK ESKURATZEA: % 2,0

● Sustapena eta baliabideak eskuratzea	892.213.-
--	-----------

ADMINISTRAZIOA ETA EGITURA : % 7,5


● Administrazioa eta Egitura	3.386.498.-
------------------------------	-------------

GASTUAK 2012. URTEAN, GUZTIRA: 45.095.928.-

2012ko SUPERABITA (*) 3.188.364.-


- (1) Dohaintza partikularrak, elkarte eta fundazioak, enpresak eta anonimoak hartzen ditu.
- (2) Honakoak hartzen ditu barne: ez ohiko emaitzak, aurreko urteetan emandako laguntzen itzulketak/deuseztapena, aldaketa-diferentzia positiboak eta aplikatutako probisioak.
- * 2012. urtean izandako superabita, 2013. urtean proiektu berriak onartzeko xedatuko da.

Diru-Sarrereren Jatorria (Diru bilketakoa)



* Ikastetxeak, Larrialdiak, Sentsibilizazio-jarduerak, Dirulaguntza pribatuak, Diru-sarrera finantzarioak eta beste diru-sarrera pribatu batzuk.

Gastuen Banaketa



Gastuen banaketa aplikatzeko irizpideak

Gastuak, **Manos Unidas erakundearen helburuak** betetzera bideratutako eta **funtzionamenduko gastuen** artean banatzen dira.

● ERAKUNDEAREN HELBURUETARAKO GASTUAK:

- ▶ Sentsibilizazioa. Sail honek Garapenerako Hezkuntza Arloaren gastuak jasotzen ditu, baita Komunikazio Arloak helburu hauetarako xedaturikoak ere.
- ▶ Proiektuak. Urteko ekitaldian onarturiko proiektuen guztizko zenbatekoa jasotzen du.
- ▶ Proiektuen kudeaketa. Proiektuak identifikatzeko eta gainbegiratzeko eginiko bidaien gastuak, Proiektuen Arloko langileen gastuak, eta kontu-ikuskaritzek eta finantzaturiko proiektuen ebaluazioek eragindako gastuak.

● FUNTZIONAMENDU GASTUAK:

- ▶ Baliabideak sustatzea eta biltzea. Diru-laguntzak biltzera eta erakundearen jardura iragartzera bideraturiko Komunikazio Arloko gastuak jasotzen ditu.
- ▶ Administrazio eta egitura gastuak. Erakundearen kudeaketan eta administrazioan sorturiko gastuak dira.



Manos Unidas, bere funtsen gardentasunean irmoki konprometitutako erakundea da. Izatez, erakunde bezala, gardentasuna da gure balioetariko bat, eta burutzen ditugun jardueri buruz gizartearen aurrean erantzuteko apustuaren isla garbia da.

ESPAUDIT GABINETE DE AUDITORÍA, S. A enpresak auditatu ditu gure urteko kontuak.



Gure web orrian aurki daiteke txosten osoa:
www.manosunidas.org,
Paperean nahi izanez gero,
gure ordezkaritzetan eska daiteke.

Gainera, Manos Unidas erakundeak **Fundación Lealtad**ek ezarritako gardentasuna eta jardun zintzoaren printzipioak betetzen ditu.



**ONG
ANALIZADA**

POR FUNDACIÓN LEALTAD

Manos Unidas erakundea **Garape-nerako Nazioarteko Elkarlanerako Agentzia Espainiarrak (AECID)** finantzatzeko aukera izan dezan kalifikatua dago.



Manos Unidas erakundeak **Espainiako GGKEen Koordinakundearen**

gardentasun tresnaren eta kudeaketa onaren atal guztiak betetzen ditu.



Coordinadora
de ONGD-España

Herrialderik behartsuenen alde egiten dugun lana ezinezkoa litzateke Manos Unidasen adiskide eta laguntzailerik gabe. Asko dira lagundu diguten boluntarioak, langileak, bazkideak, laguntza ematen duten norbanakoak eta talde edo elkarteak (ikastetxeak, parrokiak...), enpresak, bankuak, elkarteak eta fundazioak. Batzuek dirua emanaz, besteak garapen-proiektuak finantzatzuz, ekimen jakinetan lagunduz edo mota askotako zerbitzuak eskainiz.

Guztiei, mila esker!

Ondoren, hala ere, horietariko batzuk aipatuko ditugu, leku-faltagatik denak aipatzea ezinezkoa baita. Garapen-proiektuetan finantza-kide ditugunak ez dira hemen aipatuko, Txosten honekin batera argitaratzen den "Proiektuen Liburu"n agertuko baitira.

Empresak

- ▶ AARBEI CARTERA E INVERSIONES, S.L.
- ▶ ADVANTIA COMUNICACIÓN GRÁFICA
- ▶ AGUA DE FIRGAS SA
- ▶ ALMUDEVE SERVEIS SL
- ▶ ANTÓN ALÓS CB
- ▶ ASOCIACION DE LA PRENSA
- ▶ AUTOBUSES LA VILLAVESA, S.A.
- ▶ BANCO SABADELL
- ▶ BANCO SANTANDER
- ▶ BBVA
- ▶ BON PREU, S.A.
- ▶ BUSINESS MORALES, S.L.
- ▶ CAIXABANK
- ▶ CECA
- ▶ CLINICAS DOCTOR JUAN CABRERA, S.L.
- ▶ CRE INGENIEROS, S.L.
- ▶ DERIVADOS DEL COLÁGENO, S.A.
- ▶ DESGUACES PARIS, S.L.
- ▶ DEVON HOLDING, S.L.
- ▶ DOMINGO ALONSO, S.L.
- ▶ EL CORTE INGLES, S.A.
- ▶ EMPRESA PLANA, S.A.
- ▶ GMV EUROLIFT, S.A.
- ▶ HABANA 200, S.L.
- ▶ HERMANOS CLEMENTE PEREZ, S.L.
- ▶ INPELSA
- ▶ INTERAPOTHEK, S.A.
- ▶ KH LLOREDA, S.A.
- ▶ LIBECROM, S.A.
- ▶ LLOBET DE FORTUNY, S.A.
- ▶ MANUFACTURAS RUIZ, S.A.
- ▶ MODUS DE INVERSIONES 2008
- ▶ NETOBRIL, S.A.
- ▶ OPTIM, S.A.
- ▶ OSORMEGO, S.L.
- ▶ RADIO POPULAR, S.A. (CADENA COPE)
- ▶ S´ALGAR HOTELS, S.A.
- ▶ SAICARJE, S. L.
- ▶ TEJAS BORJA, S.A.
- ▶ UNIVERSAL DE ALIMENTACION, S.A.
- ▶ VUELING AIRLINES, S.A.

Bastelako erakunde, elkarte eta fundazioak

- ▶ ACEPA (ASOCIACION PROV ENSEÑANZA PRIVADA DE ALBACETE)
- ▶ AGR.TRABAJADORES CAJAS RURALES (CIUDAD REAL)
- ▶ AMAS DE C. MELGAR (BURGOS)

MANOS UNIDAS ERAKUNDEAREN LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT 328

Txartel hau betez, 902 40 07 07 telefonora deituz, edo www.manosunidas.org bidez.

Izena
 Deiturak
 IFZ Jaiotze data
 Helbide osoa
 Posta Kodea
 Herria Probintzia
 Posta elektronikoa
 Telefono mugikorra Beste telefonoa

ZENBATEKOA

- 6 euro
 20 euro
 euro

ALDIROKOTASUNA

- Hilero
 Behin bakarrik

KUOTAREN EGUNERATZEA

- Urteko KPI
 % 5
 %

Manos Unidas erakundeari egindako dohaintzek % 25eko zerga-arintzea dute PFEZaren kuotan, edota % 35a Sozietateen gaineko Zergaren kuotan, legeak ezarritako mugen barruan betiere.

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/99 legean xedatutakoaren arabera, emandako datuak 1.942.351.573 zenbakiarekin Datuen Babeserako Agentzian erregistraturiko Manos Unidas erakundearen fitxategian sartuko dira, eta banku helbideratzeak erraztera eta legezko betekizunetara xedatuko dira. Interesatuak edozein unetan datuak kontsultatu, zuzendu edo deusezta ditzake hemen: Manos Unidas. Barquillo 38, 3º. 28004 MADRID.

Ez dut jaso nahi Manos Unidas erakundearen informaziorik

DIRU-SARRERAK EDO TRANSFERENTZIAK EGITEKO BANKETXEAK

Bankia: 2038.0603.28.6001036580 **La Caixa:** 2100.2261.59.0200139842
Ibercaja: 2085.9252.03.0330430677 **Santander:** 0049.0001.54.2210040002
Sabadell: 0081.5240.07.0001941401 **Popular:** 0075.0001.85.0606400006
BBVA: 0182.2325.08.0011344904

(Bidaliezaguzu, arren, banketxeak emango dizun frogagiria)

BANKU HELBIDERATZEA

Kontuaren titularrak

Bezeroaren Kontuaren Kodea

Begiratu zure taloitegi, libreta edo laburpena, eta bete datu guztiak.

Entitatearen kodea Bulegoaren kodea KD Kontuaren zenbakia

KREDITU TXARTELAREN BIDEZ

VISA 4B MASTER CARD AMERICAN EXPRESS

Iraungitze data: Titularraren sinadura:

..... /

Data: 201.....ko ren

Edozein kontsulta egin nahi izanez gero, jo ezazu hona: socios@manosunidas.org edo 91 308 20 20 telefonora

- ▶ APA COLEGIO ESCOLAPIOS (POZUELO)
- ▶ ASOCIACION ACCION VERAPAZ DE SALAMANCA
- ▶ ASOCIACION AMIGOS DE S.VIATOR
- ▶ ASOCIACION ANAWIN
- ▶ ASOCIACION CORDOBESA TERCER MUNDO (CÓRDOBA)
- ▶ ASOCIACION JUVENIL BRIJOVEN (GUADALAJARA)
- ▶ ASOCIACION JUVENIL ENCLAVE (MADRID)
- ▶ CÁRITAS DIOCESANA (PLASENCIA)
- ▶ CARITAS NERJA (MÁLAGA)
- ▶ CARITAS PARROQUIAL (ARGAMASILLA DE ALBA)
- ▶ CARITAS TORRE DEL MAR (MÁLAGA)
- ▶ CENTRO DE CULTURA POPULAR DE CÓRDOBA
- ▶ CENTRO PIGNATELLI
- ▶ CLUB ROTARIO LOGROÑO
- ▶ COL. OF. ABOGADOS DE VALENCIA
- ▶ COL. OFICIAL DE MÉDICOS DE JAÉN
- ▶ DELEGACION PASTORAL JUVENIL DE LEÓN
- ▶ ESC. PROFESIONAL XAVIER DE VALENCIA
- ▶ FUNDACION ABEL MATUTES
- ▶ FUNDACION BANCAJA
- ▶ FUNDACION CAJAMAR
- ▶ FUNDACION CANARIA NARANJO GALVAN
- ▶ FUNDACION COPRODELI
- ▶ FUNDACIÓN CULTURAL BANESTO
- ▶ FUNDACION ENRIQUE ESTEVE BALET
- ▶ FUNDACION GUIRBAU
- ▶ FUNDACION HOSPITAL DE POBRES DE VALENCIA

- ▶ FUNDACION JESUS SERRA
- ▶ FUNDACION JUAN MANUEL VILLAR
- ▶ FUNDACION L&L BHAGWANDAS SIRWANI PALACIO ORIENTAL
- ▶ FUNDACION NTRA. SRA. DE LA MISERICORDIA (SEGOVIA)
- ▶ FUNDACION PRIVADA MIARNAU
- ▶ FUNDACION PUIG PORRET
- ▶ FUNDACION REINA SOFIA
- ▶ FUNDACION UNIVERSIDAD SAN ANTONIO
- ▶ FUNDACION VEDRUNA
- ▶ FUNDACION VIC VEDRUNA
- ▶ IBERCAJA OBRA SOCIAL
- ▶ INSTITUCION BENEFICA DEL SAGRADO CORAZON
- ▶ INSTITUCIÓN BENÉFICA SAGRADO CORAZÓN DE JESÚS (ALBACETE)
- ▶ INSTITUCION BENEFICA SAGRADO CORAZON DE GRANADA
- ▶ MUJERES DE ACCION CATOLICA (CALATAYUD)
- ▶ PROCLADE BETICA EN PLASENCIA

Itunak

- ▶ BANCAJA
- ▶ BANSABADELL VIDA
- ▶ BERMAX 5.000 S.L.
- ▶ FUNDACIÓN CAJASOL
- ▶ HIDROALTAUX S.L.
- ▶ INTERNATIONAL BUSINESS MACHINES S.A.
- ▶ RADIO POPULAR S.A.
- ▶ REAL AUTOMÓVIL CLUB DE CATALUÑA

- ▶ SOC. ESTATAL DE CORREOS Y TELÉGRAFOS S.A.
- ▶ SOLUCIONES NETQUEST DE INVESTIGACIÓN S.L.
- ▶ UNNIM

Babesleak

- ▶ BANCO POPULAR (PREMIOS RELATOS Y CARTELES INFANTILES)
- ▶ BANCO SANTANDER (PREMIO TELEVISIÓN)
- ▶ CECA (PREMIOS PRENSA ESCRITA Y PRENSA DIGITAL)
- ▶ COALIMENT S.A. (CONCIERTO)
- ▶ DIP. CASTELLÓN (CONCIERTO ESCOLANÍA VALLE DE LOS CAÍDOS)
- ▶ DIP. GUADALAJARA (CONCIERTO DE NAVIDAD)
- ▶ LA CAIXA (PREMIO CARTELES)
- ▶ OBRA SOCIAL LA CAIXA (CONCURSO DE NARRACIONES)

Komunikabideak

Manos Unidas erakundeak esker bereziak eman nahi dizkie gure mezuak eta iragar-kiak dohainik argitaratzen dituzten komu-
nikabide nazional, autonomiko eta toki-
koei (egunkariak, aldizkariak, irrati eta
telebistak)

Guztiei, mila esker!

**Egin zaitetz azkide.
Lagundu.**

RESPUESTA COMERCIAL
Autorización nº 12.979
B.O.C. Nº15 del 11/02/94

Franquear
en destino

Manos Unidas
Apartado nº: 1.154 F.D.
28080 Madrid



*Pertsona asko izan
dira Manos Unidaseko
milaka bazkide eta
laguntzaileei esker
beraien bizimodua
hobetzea lortu dutenak.
Batasunean,
solidaritatean,
doakotasunean eta
justizian oinarritutako
espíritu horrek
mugiarazten gaitu,
hain zuzen ere, mundu
hobeagoaren alde
eguneroko borrokan
jarraitzera.*

Manos Unidas erakundearen ordezkariak (helbideak)

- 15001 A CORUÑA
Marqués de Cerralbo, 11 bajo /
Tel. 981 20 56 59
- 02002 ALBACETE
Teodoro Camino, 8 / Tel. 967 21 23 15
- 28802 ALCALÁ DE HENARES (Madrid)
Vía Complutense, 8 bis / Tel. 91 883 35 44
- 03003 ALICANTE
Arquitecto Morell, 10-2.ª esc. 1.º H /
Tel. 96 592 22 98
- 04001 ALMERÍA
Ricardos, 9 - 1.º izq. / Tel. 950 27 67 80
- 24700 ASTORGA (León)
Martínez Salazar, 8 - 1.º / Tel. 987 60 25 36
- 05001 ÁVILA
Plaza del Rastro, 2 - bajo / Tel. 920 25 39 93
- 06005 BADAJOZ
Avda. Antonio Masa, 11 / Tel. 924 24 89 51
- 22300 BARBASTRO (Huesca)
Juan de Lanuza, 6 - bajo / Tel. 974 31 56 14
- 08037 BARCELONA
Pau Claris, 190, 1.º 1.ª / Tel. 93 487 78 78
- 48005 BILBAO
Pza. Nueva, 4, 3.º / Tel. 94 479 58 86
- 09005 BURGOS
Clunia, s/n. / Tel. 947 22 06 87
- 10003 CÁCERES
General Ezponda, 14, 1.º / Tel. 927 21 44 14
- 11001 CÁDIZ
Hospital de Mujeres, 26 / Tel. 956 21 49 72
- 12001 CASTELLÓN
San Luis, 15, entresuelo - 1.º A /
Tel. 964 22 88 58
- 51001 CEUTA
Pza. de África, s/n. / Tel. 956 51 12 53
- 13001 CIUDAD REAL
Caballeros, 7 - 2ª planta / Tel. 926 25 54 67
- 37500 CIUDAD RODRIGO (Salamanca)
Díez Taravilla, 15 / Tel. 923 48 20 35
- 14008 CORDOBA
Concepción, 4, 1.º B / Tel. 957 47 95 78
- 16002 CUENCA
Avda. Rep. Argentina, 25 / Tel. 969 22 20 22
- 15402 FERROL (La Coruña)
Magdalena, 153, 1.º dcha. / Tel. 981 30 03 18
- 28901 GETAFE (Madrid)
Almendro, 4, 2.º / Tel. 91 683 89 85
- 17002 GIRONA
S. J. Bautista La Salle, 19, 2.º 2.ª /
Tel. 972 20 05 25
- 18009 GRANADA
Pza. Campillo, 2, 5.º G y H / Tel. 958 22 66 20
- 19005 GUADALAJARA
Avd. Venezuela, 9 - Colonia Sanz Vázquez
Tel. 949 21 82 20
- 18500 GUADIX (Granada)
Pso. Ismael González de la Serna, 1 bajo /
Tel. 958 66 35 92
- 21003 HUELVA
Cardenal Cisneros, 11 / Tel. 959 25 33 88
- 22002 HUESCA
Pza. de la Catedral, 8 / Tel. 974 22 65 56
- 07800 IBIZA (Balears)
Pedro Francés, 12, 2.º / Tel. 971 31 27 74
- 22700 JACA (Huesca)
Seminario, 8, 3.º / Tel. 974 36 22 51
- 23007 JAÉN
Maestro Bartolomé, 7, dupl. /
Tel. 953 25 01 14
- 11402 JEREZ DE LA FRONTERA (Cádiz)
Sevilla, 53 / Tel. 956 18 01 56
- 35003 LAS PALMAS DE GRAN CANARIA
Angel Guerra, 26 - bajo /
Tel. 928 37 13 07
- 24003 LEÓN
Sierra Pambley, 6 - 3.º C / Tel. 987 24 84 08
- 25002 LLEIDA
Blondel, 11, 2.º / Tel. 973 26 91 04
- 26004 LOGROÑO
Obispo Fidel García, 1 / Tel. 941 24 78 88
- 27001 LUGO
Cruz, 1B, 1.º / Tel. 982 25 55 67
- 28013 MADRID
Gran Vía, 46 - 4.º / Tel. 91 522 17 83
- 07701 MAHÓN (Menorca)
Carrero des Mirador de ses Monges, 1 /
Tel. 971 36 99 36
- 29015 MÁLAGA
Strachan, 6 - 3.º Izda. / Tel. 95 221 44 47
- 30001 MURCIA
Pza. Beato Andrés Hibernón, 1 - Ent. Izqda. /
Tel. 968 21 40 29
- 32005 OURENSE
Pza. Obispo Cesáreo, s/n / Tel. 988 23 37 82
- 33003 OVIEDO
San Isidoro, 2 - bajo / Tel. 98 520 31 61
- 34001 PALENCIA
Gil de Fuentes, 12 - 2.º Izq. / Tel. 979 75 21 21
- 07001 PALMA DE MALLORCA (Balears)
Seminario, 4 / Tel. 971 71 89 11
- 31006 PAMPLONA
Avda. Baja Navarra, 64, 1.º / Tel. 948 21 03 18
- 10600 PLASENCIA (Cáceres)
Las Veras, 3 / Tel. 927 42 17 07
- 36003 PONTEVEDRA
Peregrina, 50 entreplanta / Tel. 986 85 08 12
- 37002 SALAMANCA
Rector Lucena, 20, 5.º A / Tel. 923 26 15 47
- 20005 SAN SEBASTIÁN
Loyola, 15, 3.º Izda. / Tel. 943 42 45 10
- 38002 SANTA CRUZ DE TENERIFE
Pérez Galdós, 26, 3.º Dcha. / Tel. 922 24 34 42
- 39001 SANTANDER
Rualasal, 5, 2.º Dcha. / Tel. 942 22 78 07
- 15705 SANTIAGO DE COMPOSTELA
Rúa del Villar, 18 apdo. 456 / Tel. 981 58 49 66
- 40001 SEGOVIA
Seminario, 4 - bajo / Tel. 921 46 02 71
- 41004 SEVILLA
Pza. Virgen de los Reyes, s/n. /
Tel. 95 422 75 68
- 25250 SOLSONA-BELLPUIG (Lleida)
Avd. Preixana, 16 / Tel. 973 32 01 83
- 42002 SORIA
San Juan, 5 - 1.º / Tel. 975 23 14 90
- 50500 TARAZONA (Zaragoza)
San Antón, 11 - 1.º / Tel. 976 64 47 81
- 43001 TARRAGONA
Rambla Nova, 119. esc A, 2.º 2.ª /
Tel. 977 24 40 78
- 44001 TERUEL
Yagüe de Salas, 18 - bajo / Tel. 978 61 18 45
- 45002 TOLEDO
Trinidad, 12 / Tel. 925 22 99 11
- 43500 TORTOSA (Tarragona)
Mercaders, 2 - bajo / Tel. 977 51 14 28
- 25700 URGEL (Lleida)
Pati Palau, 1-5 / Tel. 973 35 22 30
- 46003 VALENCIA
Pza. Comunión de S. Esteban, 1 - bajo /
Tel. 96 391 91 29
- 47002 VALLADOLID
Simón Aranda, 13, 1.º / Tel. 983 30 50 65
- 08500 VIC (Barcelona)
Ronda de Camprodón, 2 /
Tel. 902 702 032 - Ext. 3140
- 36204 VIGO (Pontevedra)
Vázquez Varela, 54, 2.º B / Tel. 986 42 36 96
- 01004 VITORIA
Fueros, 6, 1.º izqda. / Tel. 945 23 11 79
- 49003 ZAMORA
Plaza del Seminario, 2 / Tel. 980 53 20 91
- 50001 ZARAGOZA
Plaza de la Seo, 6 - 2ª planta /
Tel. 976 29 18 79



Manos Unidas
2010eko Adiskidetasunaren
Asturiasko Printze Saria

*Eskerrik beroenak horretan
lagundu duten guztiei*

Manos  **Unidas**

SERVICIOS CENTRALES

Barquillo, 38-3º. 28004 Madrid

Telf.: 91 308 20 20 - Fax: 91 308 42 08

www.manosunidas.org - info@manosunidas.org